

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**7/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 14koa, baimentzen duena Jon Mikel Orbeta Berriatua jaunak Urkabustaizko Udaleko idazkari lanpostuan bitarteko funtzionario moduan jarduteari uztea, berak eskatuta**

Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren urriaren 15eko 61/2019 Foru Aginduaren bidez (ALHAOn 2019ko urriaren 23an argitaratuta), Jon Mikel Orbeta Berriatua jauna izendatu zen Urkabustaizko Udaleko idazkari lanpostuan bitarteko funtzionario moduan jarduteko, postu horretako titularra, Maria Luis Velasco Irusta andrea, aldi baterako lan ezgaitasunean zegoelako.

Udal horrek idazkia bidali dio Arabako Foru Aldundiari, jakinarazteko funtzionario hark lanpostuan jarduteari uko egin diola, 2020ko urtarrilaren 10etik aurrerako ondorioekin, eta udalak onartu duela uko egitea.

Aurretik azaldutako guztia ikusirik, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Jon Mikel Orbeta Berriatua jaunak Urkabustaizko Udaleko idazkari lanpostuan bitarteko funtzionario moduan jarduteari uztea, berak eskatuta.

Bigarrena. Uzte horrek 2020ko urtarrilaren 10etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa duenari, Urkabustaizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 14a

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**